

❧ Hitz eta Pitz ❧

Elkarrizketa:

TERESA COLOMER



Argazkia: CLIJ

Teresa Colomer Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea da. Haur eta Gazte Literatura ikasgaia ematen du Unibertsitatean eta hamaika hitzaldi, ikastaro eta artikulua egin ditu gai horren inguruan. Duela urtebete inguru gaztelaniaz argitaratu zuen egungo Haur eta Gazte Literaturari buruzko ikerketa luzea: La formación del lector literario. Narrativa infantil y juvenil actual, izenekoa.

Euskal literaturarekiko sentsibilitate berezia sumatu diogu mundu honetan ari garenok eta interresgarria iruditatu zaigu aditu horren iritzia ezagutzeari eta kanpotik nola ikusten gaituzten jakitea ere. Horrela, berarengana jo eta arlo honi buruzko bere iritzia eskatu genion. Baita berehala jaso erantzuna ere. Hona hemen, beraz, berak eskatu bezala «elkarrizketa ez oso luzea» eta interesgarria.

Behinola: Teresa, duela gutxi argitaratu duzu Haur eta Gazte Literaturari buruzko ikerketa luze bat, nola ikusten duzu aldatu dela Haur eta Gazte Literatura azken urte hauetan?

Teresa Colomer: Obra horretan, nire doktore tesiaren ondorioa baita, 1977 (demokraziaren hasieratik) eta 1990 (ikerketari hasiera eman nion urtea) bitartean kritikak gehien baloratutako liburuak aztertu ditut. Helburua, helduok belau-naldi berriei ematen diegun kalitatezko literaturaren ezaugarriak ikustea zen. Alde horretatik, nire interesa ez zen jatorrizko hizkuntza bat zein beste bat aukeratzea, gizarte jakin bateko haurrek irakur

zitzaketan obren hautaketa baizik. Abiapuntua beti da gizarte jakin bat, ez dago testuinguruaren abstrakzioz. Horregatik, katalanera zein gaztelaniaz argitaratutako obrak behar zuten izan, horietatik baitira Kataluniako haurrek irakur ditzaketan bi hizkuntzak. Aukeraketaren barruan, beste hizkuntzetatik itzulitako obrak ere badaude: euskaratik, galegotik eta atzerriko hizkuntzetatik. Hala ere, urte horietan kritikak (sari nazional eta Kataluniako pisuzko hautaketak) baloratutako obra euskaldunak eta galegoak oso gutxi izan ziren, beharbada literatura horiek beren has-tapenetan zebiltzalako eta itzulpenak oso urriak

zirelako. Dena den, ez dut uste hori garrantzitsua denik haur eta gazte narratibagintza deskribatzeko orduan, literatur joera orokorrak berberak direlako.

Urte horietan haur eta gazteei zuzendutako literatura errotik aldatu zen. Izan ere, denboradesfase txiki batekin bada ere, gauza bera gertatzen da mendebaleko literatura guztietan; beraz, literatura horren historian garai berri bat zabaldu zen. Islaturiko giza baloreak, ukitutako gaiak, eta narratzeko era aldatu ziren. Haur eta gazte literatura modernizatu egin zen, irakurle mota berri bati egokitzeko: gizarte alfabetatu, postindustrial, demokratiko, postmoderno eta ikusentzunezkoen kontsumitzaileen haurren beharretara. Folkloreak eta haur eta gazteentzako obra klasikoek erabat indarrean jarraitzen badute ere, literatura berria parametro guztiz desberdinetatik abiatuta sortu zen.

Behinola: Nola ikusten duzu Haur eta Gazte Literaturaren egoera orokorrean? eta zer nolako iritzia duzu euskal Haur eta Gazte Literaturaz?

T. C.: HGLk izugarritzko garapena izan du eta, beste edozein masa fenomeno kulturalak bezala, bide asko hartu ditu. Badira eskola liburuak, jolas liburuak, narrazio dokumentalak, garrantzirik gabeko kontsumo liburuak, edo kalitatezko literatura eskaini nahi duten liburuak. Era askotako liburuak egotea guztiz normala da helduentzako literaturan, baina haurrentzako literaturaren azterketetan talde oso bakartzat jotzeko joera dago oraindik.


90eko hamarkadan kalitatezko haur literaturak geldialdi bat izan du, hainbeste esperimenezko ondoren berriz ere formula berriak bilatzeko. Neurri batean, beraz, kontserbatzaileagoa dirudi. Halaxe da, esaterako, albumak argi-

taratzeko arriskurik hartzen ez denean. Argitaratzen direnak gai samurretan geratzen dira sarri, eta hartz maitagarri betetzen dira. Baina hartutako bideen balantzea egiteko ordua ere bazen. Adibidez, abentura tradizionala edo terrorezko literatura baztertuta zeuden. Azken urteotan berpiztu diren bi genero dira horiek. Adin-muturretako obrak ere garatu dira. Lehenago irakurtzen hasten ari zirenentzako liburuak eta gazte-nobelak argitaratu baziren, orain 0-6 urtekoentzako liburuak eta «gazte helduentzako» narrazioak ditugu. Esan behar dut azken genero hori ez dardala onartzen. Nire ustez, 15 edo 16 urtetik aurrerako gazteek ez dute literatura espezifikorik behar. Helduentzat dagoen literatura zabalean aukatzen jakitea da kontua.

Badirudi euskal haur literatura oso aktiboki garatzen ari dela, baina kanpoko inpresioa izan daiteke hori, lehen baino gehiago itzultzen delako soilik. Biziraupena jokoan daukaten literaturak –eta oso ondo dakigu hori Katalunian– bi muturren arteko gatazkan dihardute: itzuliak izatea kanpoan ezagutarazteko, edo itzuliak ez izatea obrak jatorrizko hizkuntzan irakurriak izateko. Euskaraz irakurtzen ez dakigunon ikuspuntutik, itzulpena oparia da, baina ez da euskaldunei «eskutuko» niekeen zerbait. Arazo konplexua eta tentsioz betetakoa da, merkataritzakoetatik ideologikoetara.

Behinola: Gehiegi itzultzen al da? Zure ustez ba al dago itzuli behar zenik eta itzuli gabe uzten dena?

T. C.: Askok itzultzen da, bereziki atzerriko hizkuntzetatik. Itzulpenak liburua merketu lezake ilustrazioaren kasuan, beste tokietan harrera ona erakutsi duten tituluekin eginez gero. Hori ona da irakurleentzat, baina txarra izan daiteke egileentzat, konkurrentzia



Bernardo Atxaga

Ilustracions Juan Carlos Egullor

EL PIZCARRA

handiagoa baita. Dena dela, ez-bairik gabe kultura orok bere ahots propioa bultzatu beharko luke eta, hortaz, nolabaiteko oroka bilatu beharko litzateke bertako egileen eta itzultzen den obra-uholdearen artean. Gainera, itzulpenen bermea, askotan, ez da berezko kalitatea, merkaturko monopolioak baizik.

Itzultzen ez dena, ahots gutxituak dira, edo indar editorial txikiko herrien emaitzak. Hirugarren mundu osoa isilduta dago gaur eguneko eskaintza editorialean eta, beraz, herri horiei buruz daukagun irudi bakarra mende-baleko begirada da. Hori bera nabarmena da hispanoamerikaren kasuan. Gure merkaturuan apenas ez dago liburu argentinarrik, kasurako, han oso HGL ona izan arren, eta gaztelaniara itzultzeko arazorik ez dagoen arren.

Aitzitik, zentzurik gabeko bi itzulpen-fenomeno nabarmendu nahi nituzke. Lehena, Katalunia, Valentzia eta Balear uhartetako katalaneren artean ezartzen ari diren hesiak, errealitate kulturala politikoki bereizteko ahaleginak direla medio. Harrigarria bada ere, liburuak «katalanera» itzultzen dira batetik, eta «valentzierara» bestetik; areago, katalanerazko obrak bertsioreiztuetan argitaratzen dira hizkuntza-bariante bakoitzean. Mende hasieran ezarritako araua malgutu beharrean, egindako bidea desegiten eta batasun linguistikoaren kontzientzia hausten saiatzen ari dira.

Bigarren fenomeno, gaztelaniatik penintsulako beste hizkuntzerara egiten den itzulpenarena da. Hizkuntza gutxituetako hiztunok abantailaren bat baldin badugu, gaztelania ere jakitea da. Ez dakit zergatik oztopatzen den hurrek obrak jatorrizko hizkuntzan irakurtzea.



Galdera: Nola ikusten duzue Atxaga gertakaria Euskal Herri-
tik kanpo? Beste idazle batzuei
bide ireki edo bere nagusitasunarekin dena betetzen duen
figura moduan ikusten duzu?

T. C.: Atxagaren fenomeno oso positiboa dela uste dut. Helduentzako egile gisa daukan prestijioa, modernotasuna, umorea edo bere obretako euskal erroak, euskal HGLri –eta HGLri buruz oro har– buruzko aurreiritziak hausten lagundu duten ezaugarriak datezke. Ez dut uste eklipse gisa funtzionatzen duenik, baizik eta hain eza-gunak ez diren beste egile batzuk bultzatzeko aditasun-faro baten gisa. Galiziako HGLk, esaterako, bere burua bultzatu eta indar kolektiboaren irudia emateko bideak aurkitu ditu.

Behinola: Nola ikusten duzu Eskola eta HGLren arteko harremana? Zein da arlo horretan unibertsitateak, edo unibertsitateko irakasle batek egin beharreko lana?

T. C.: HGL duela gutxi irtsi da Unibertsitate-ra. Adibidez, Haur Hezkuntzako maisu-maistren ikasketa planetan soilik agertzen da unibertsitate guztietako derrigorrezko asignatura bezala. Argi dago lehen eta bigarren hezkuntzako ikasketetara zabaldu behar dela, irakasle guztiek beren ikasleen ustezko irakurgaiak ezagutu behar baitituzte, ikasleak behar bezala bideratu ahal izateko. Baina irakaskuntzatik kanpoko beste ikasketetan ere egon beharko luke, hala nola filologietan, oso fenomeno kultural interesgarria baita ikuspegi pedagogiko, literario, ideologiko, psikologiko, etabarretatik. HGLn, kasurako, gizarteak bere burua ikusteko, helduak haurren gaitasunak eta interesak ulertzeko, ikusentzunezko fikzioak li-

teratur produkzioa baldintzatzeko, edo gizartearen irakurtzaletasunari buruzko prebisioak egiteko moduaz dagoen erretratorik onena dago.

Behinola: Zure artikulu eta lanetan sarritan aipatzen eta komentatzen duzu euskal HGL; interesatzen al zaio Kataluniako irakurlari euskal HGL?

T. C.: Niretzat «Espainiako HGL»z hitz egin denean, Estatuko lau hizkuntzetako literaturak sartzea kritika-seriotasunaren eginbeharra izan da beti, nahiz eta dagoen tradizioa bestelakoa izan. Arazo larri bat, lau hizkuntzak menderatzen dituzten ikertzaile falta da. Oso ondo ezagutzen duzu itzulita ez dauden euskarazko obrak nire lanetan sartzeko daukadan kezka. Literatura bakoitzari buruzko ikerketa espezifikiko –eta itzulitako– gehiago dagoen neurrian, errazagoa izango da azterketa bateratu bat eraikitzea.

HGLko irakurleei buruz, ez dut uste diferentziarik dagoenik interesari dagokionez. Testuinguru hurbil baina desberdin batean erroturiko literatura bat jasotzea aberastasuna besterik ez da.

Behinola: Ikertzaile zaren aldetik, nola ikusten duzu HGLren kritika eta ikerkuntzaren egoera gaur egun?

T. C.: Gaur egun ikerkuntza ematen ari den jauzia, aurreko hamarkadetan literatur produkzio-

ak emandakoaren parekoa da. Lauregeita hamarreko hamarkadan gaiari buruzko ikerketa balioetsu batzuk agertu dira, eta beste herrietako ikerketen menpekotasunetik askatzen ari gara. Zeregin horri berandu ekitearen abantaila, besteek egindakoaren gainean oso azkar aurreratu ahal izatea da.

Aitzitik, HGLren kritika zabaltzeko bideak oraindik oso urriak eta eskasak direla uste dut. Gurasoentzat oso zaila da, adibidez, seme-alabentzako zein liburu den interesgarri eta egokiena jakitea. Helduen literaturak hedabideetan daukan agerpena txikia da, baina HGLren kasuan salatzekoa da. Zure lagun eta ezagunek, ez al dizute etengabe eskatzen erosi beharreko liburuei buruzko informazioa? Uste dut horri buruzko benetako behar soziala dagoela.

Beste aldetik, egile eta argitaldariak kexu dira kritikaren isiltasunaz, baina benetan nahi luketena aldeko kritika bat dela iruditzen zait. Eztabaida eta polemika gune bat onartzeak, aldeko eta kontrako kritikak tarteko, isiltasunaren ohi-turak eragotzi duen heldutasun kulturala eskatuko luke.

Espero dezagun, Teresa, aldizkari honek eta zure lanak, beste batzuekin batera, bide hori urratzen laguntzea. Mila esker gurekin egon izan zarelako eta egongo zarelako ere.



Jokin Mitxelena